



Autogobernuaren alde ELAk 1997an Gernikan deituriko kontzentrazioa.

• ASTERO GAIA •

Autogobernua

Saio berriak

ohiko muga Madrilen

Autogobernua aurrera egin eta gatazka politikoari irtenbidea emateko ahalegin berri batean murgildu da buru belarri Ibarretxe lehendakaria. Sindikatu abertzaleek, ordea, sinesgarritasun gutxi ematen diote eta Hobetuzekin gertatu dena jartzen dute adibide gisa.

XABIER LETONA

Argakia: Alberto Elozegi

IBARRETXE LEHENDAKARIA Moncloan izan zen joan den astean eta berak proposatutako itun eta galdeketari ezezko borobila luzatu zion Jose Luis Rodríguez Zapatero gobernu buruak. 2005eko otsailean ere berdintsu gertatu zitzaion Euskadiko Erkidegorako Estatutua aurkeztu zuenean. Irudia etsigarria da: autogobernua aurrera egin nahi eta ezin.

Autogobernuaren krisi latza, horixe izan zen ELAk duela 10 urte –urriaren 18an– Gernikan

agertu zuena. “Gernikako Estatutua hila dago” barreiatu zuen lau haizetara. ELAk Estatutuaren aldeko apustua egin zuen 1979an eta Gernikan euskal gizarteari luzatu zion mezu hark oso ukitua utzi zuen berau. Baina ez zen bera bakarrik, EAJ eta EAKo sektore batzuen adierazpenak Gernikako Estatutuaren higadura laguntzen ari ziren. Madrilgo gobernuak ere higadura hori etengabe laguntzen ari ziren, Estatutuan falta ziren eskumenen transferentzia –bereziki

ikuspegi sozialekoak— behin eta berriz ukatzen zutelako. Ezker abertzaleko erakundeentzat ez zegoen sekreturik ELAren posizionamendu berrian, HBk eta LABek hasieratik arbuiaut bai-zuten Gernikako Estatutua.

Gaur egun, PPk eta PSOEk ordezkaten duten eremuetan ezik, nekez ulertzen da erabaki eskubideari lotu gabeko autonomi edota autogobernu markorik. EAJn, besteak beste, gaiari buruzko eztabaidak aurrez aurre eraman du Josu Jon Imaz. Jubilatuaeren talaiatik Xabier Arzalluz buruzagi jeltzale ohia da mezua behin eta berriro errepikatzen duena: hau agortua dago, orain autodeterminazioaren unea da, Ibarretxeren unea.

Txema Montero abokatuak ez du horren argi berba egiten, baina hilaren 14an *Deia*-n egindako elkarrizketa batean iradokitzen zuenez, orain arteko autogobernuak balio izan du, baina euskal gizarteak dagoeneko beste tresna batzuk behar ditu erronka berriei aurre egiteko, batez ere globalizazioari. Ramon Zallo Unibertsitateko irakasle eta Ibarretxeren aholkulariak ere, agortutako ereduak baztertu eta zer bait berria behar dela adierazi berri du *Rebelión* agerkari elektronikoan argitara emandako artikuluan, eta hori Ibarretxeren galdeketatik etor daitekeela iritzi dio. Autogobernuaren egungo sabaiez diharduten ezpala gutxi batzuk besterik ez dira aipatutakoak.

Gernikako Estatutuaren heriotza iragar-tzeaz gain, Gernikako ekitaldi hartan ELAk

ekonomi euskal esparrua aldarrikatu zuen, eta bide horretan ezinbestekoa zen Madrilek hainbat eskumen Eusko Jaurlaritzaren esku uztea: gizarte segurantza, lan arautegia, etengabeko formakuntza... Funtsean, gizarte eta lan arloko nahiz enpleguko politikak. Gernikako Estatutuan aurreikusita ziren, baina Madrilek etengabe ukatu ditu transferentziak.

Gaia honen ezpaletakoa da azken hilabetean Hobetuzekin —formazio iraunkorrerako EAEko fundazioa— gertatutakoa. Hobetuz 1995ean sortu zen, etengabeko formazioa bideratzeko erakunde gisa. Patronala, sindikatuak eta Jaurlaritzako ordezkariak osatzen dute. Bere eremuko eskumenik ez duenez, ez du berezko fintzantzaziorik eta INEMeko diruarekin aritu da gaur egun arte (salbu eta PPren lehenengo legealdian, 1996-2000). ELAren eta LABen esanetan, iragan irailean Jaurlaritzak 12 urteko ibilbideari uko egin zion, eskumenak bere kabuz eskuratu eta horren kostua kupotik deskontatu beharrean, Madrilek emandako finantzazioa onartu duelako.

ELAko idazkari nagusi alboko Adolfo Muñozek Hobetuzekoa eta Ibarretxeren galdeketaren gaia lotu ditu iraileko *Landeia* aldizkarian, gogor gainera: “Etengabeko formazioa moduko gaietan Madrilek berea bete dezan posizio politikoari eusteko gai ez direnek ez dute sinesgarritasunik”. ■

Aro berri baterako deia



German Kortabarria, ELAko komunikazio idazkari ohia.

Elorrietak Gernikako ekitaldian Estatutua hila zegoela esan zuenean, aho-tsa jarri zion 1979an autonomiarekin bat egin zuen askok bere baitan pentsatzen zuenari. Paradoxikoki, “zentralistek” —Elorrietaren arabera Estatutuaren heriotza eragin zutenak— honen sasoi ona berretsiz erantzun zuten. Abertzaleen artean, jeltzaleak izan ziren Estatutuaren alde egin beharrean aurkitu ziren bakarrak, nahiz eta bere argudioari —elbarri, bai,

baina oraindik bizirik dago— ez zerion segurtasun gehiegirik. Ardanza lehendakariak berak, ELAk proposatutako marko berrirako estrategia arbuiaut nahian, Estatutuaren erabateko porrot politikoa berretsi zuen: “Nola hasiko gara marko berri baten alde, oraingoa betearazteko gauza izan ez garenean?”.

Estatutuaren krisia nabarmena zen, ELAk berak aspalditik salatua zuen moduan: eskuduntza asko zegoen transferitu gabe; transferitutakoak ere, aise husten edo murrizten ziren; bertako erakundeak Estatuaren aurrean inolako bermerik gabe zeuden, behin-behinekotasuna eta prekarietatea nagusi. “Itun politiko” nahi zena, letra hil bihurtua zuen Estatuak; errespetu juridikoarekin batera galdua zuen Estatuak balio estrategikoa.

ELArentzat Estatutuaren krisiaren eragina are mingarriagoa zen, berari, langile erakundea izaki, zuzenki zego-

kion gaiek osatzen baitzuten transferitu gabekoen multzo nagusia; horrela, sindikatuaren baitan aspalditik egosten ari zen Estatutuarekiko jarrera ezkorra eztabaida bihurtu zen 1997an Aznarren Gobernuak ziurtatu zuenean eskumen sozialak “inoiz” ez zirela transferituko.

“*Lasciate ogni speranza*” kategoriko hartatik bere ondorioak atera zituen ELAk: Gobernua, oposizioko alderdi nagusia eta gai honetan eragin handia duten botere faktikoak (UGT, CCOO eta CEOE) bat datoz Gernikako Estatutua *de facto* baliorik gabe uzteko; haustura ez da gai sozialetara mugatzen, alde bateko erabaki eta agintekeriak Estatutuaren alde biko izaera hausten baitu eta euskal erakunde politiko eta sozialak inolako bermerik gabe uzten; ezingo da, beraz, ezer onik espero Estatututik eta indarrean dagoen legeditik eta, ondorioz, marko juridiko-politiko berrian pentsatzen hasi beharko da. Aro zaharra itxiztat emateko eta aro berri bati ekin behar zitzaiola aldarrikatzeko deitu zuen, hain zuzen ere, ELAk Gernikara, hainbeste hauts harrotu eta itxaropen piztu zuen ekitaldira.

Gernikako ekitalditik hamar urte igaro direnean, ELAk egin zuen diagnostikoak proposatu zuen estrategiak baina arrakasta handiagoa izan duela aitortu behar da: gaur Estatutuaren porrota inor gutxi ukatzen du; autodeterminazioaren aldeko elkarlanaren estrategiak, aldiz, Lizarra-Garaziko parentesia kentzen badugu, ez du, tamalez, gure artean bidea egiterik lortu.